



## Urrietako Udala

**2013KO URRIAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 7 DE OCTUBRE DE 2013**

**Akta zenbakia:** 7/2013  
**Bilera data:** 2013-10-07  
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordu:** 19:00- 19:25  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 7/2013  
**Fecha:** 07-10-2013  
**Tipo de reunión:** Pleno Ordinario  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 19:00 – 19:25  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**  
**Alkatea:** Mikel Pagola Tolosa

**Reunidos:**  
**Alcalde:** Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**  
Maribel Vaquero Montero  
David Rosco Jorge  
Koldo Aramendi Goikoetxea  
Miren Martiarena Barkaiztegi  
Andoni Urbistondo Aranburu  
Ixiar Martiarena Lizarazu  
Xabier Yurramendi Garmendia  
Ane Salsamendi Tolosa  
Mikel Costas López  
Hermenegildo González Morán  
Consuelo Frutos González  
José Guirado Novo

**Concejales:**  
Maribel Vaquero Montero  
David Rosco Jorge  
Koldo Aramendi Goikoetxea  
Miren Martiarena Barkaiztegi  
Andoni Urbistondo Aranburu  
Ixiar Martiarena Lizarazu  
Xabier Yurramendi Garmendia  
Ane Salsamendi Tolosa  
Mikel Costas López  
Hermenegildo González Morán  
Consuelo Frutos González  
José Guirado Novo

**Bitarteko idazkaria:**  
Nagore Alkorta Elorza

**Secretaria interina:**  
Nagore Alkorta Elorza

**Aztergaiak:**

**Orden del día:**

**1.-Azken aldian Herrera kolektiboaren aurka burututako azken ekintzei buruzko mozioak.**

**1.- Mociones relativas a las actuaciones llevadas a cabo en los últimos días contra el colectivo Herrera.**

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza eta adierazi du gai hau joan den asteko Bozeramaleen Batzordean landu zela. EAJk mozio bat aurkeztu zuen eta BILDUK beste bat, eta azkenean, adostutako idatzi bat egitea lortu zen bi talde politikoen artean.

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola señalando que este tema se trató en la Junta de Portavoces celebrada la semana pasada. El PNV presentó una moción y BILDU otra y al final se logró un documento de consenso entre las dos formaciones políticas.

Jarraian, alkateak adostutako idatziaren bi puntuak irakurriko ditu:

A continuación el alcalde pasa a dar lectura a los dos puntos del documento consensuado:

*"1.- Urrietako Udalak Espainiar Gobernuaren estrategia politiko-judiziala salatzen du,*

*" 1.-El Ayuntamiento de Urnieta denuncia la estrategia político-judicial del Gobierno español,*



## Urnietako Udala

### 2013KO URRIAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE OCTUBRE DE 2013

salbuespenezko legediak oinarri hartuta, zenbait erakunde judizial, Auzitegi nazionala kasu, erabiltzen dituelako "dena ETA da" tesia aktibatzeke, ETAK duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren, eta ETAREN ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabilelako, aipatu erakunde horren erabakiaren irrebetsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatzeke ardura politikoa bere gain hartu beharrean, eta bake prozesua bultzatu beharrean.

2.- Urnietako Udalak Euskal Herritarron eskubide zibil eta politikoen errespetua eta "Herrira"ren baitan euskal presoen oinarritzko eskubideen alde lanean ari ziren atxilotutako pertsona guztien askatasuna eskatzen dute.

Andoni Urbistondo BILDUko zinegotziak hartu du hitza eta ondorengo testua irakurri du: *Pasa den astean Guardia Zibilak Euskal Herrian Herrira erakundearen aurka egindako sarekadaren inguruan honakoa plazaratu nahi genuke:*

*-Ez Ohiko Batzarrean ikusi denez, EAJ alderdiarekin adostutako mozioa onartu da orain gutxi. Ahalik eta babes, adostasun handiena lortzea zen gure lehentasuna, eta alde horretatik, alderdi jeltzaleak erakutsi duen prestutasuna eskertu nahi genuke. Atxilotetak bakea sendotzeko bidean oztopoa baino ez direla esan dute, dugu. Udalbatza honetako gehiengo handi batek, 13 zinegotzitik hamarrek, eta hori garrantzitsua da. Legebiltzarrean pasa den astean Joseba Egibar eta Laura Mintegik egin zuten adierazpen bateratua bezalaxe.*

*-Behin hori esanda, hainbat konturen inguruko argibideak edo iritzia eskatu nahi genizkioke EAJri. Aurrenekoa, pasa den astelehenean Hernaniko atxilotetetan Ertzaintzak erakutsitako jarrera bortitzaren harira. Penagarri samarra iruditzen zaigu, berez, Ertzaintzak Espainiako Guardia Zibila babestea euskal herritarrak atxilotzen dituenean, eta are penagarriagoa atxilotetak burututa gertatu zen iskanbilarekin. Mundu guztiak ikusi du prentsan eta telebistan, Amaiur alderdiko senatari bat kolpatu zutela buruan, baina asko izan ziren borrekin kolpatu zituztenak. Zergatik? Nork erabakitzen du borrak erabiltzea? Ertzainek? Agintari politikoe?*

*que, basándose en las leyes de excepcionalidad, utiliza determinadas instancias judiciales como la Audiencia Nacional para activar la tesis del "todo es ETA" a sabiendas de que ETA anunció hace casi dos años el cese definitivo de su actividad armada y porque, en vez de asumir la responsabilidad política de verificar la irreversibilidad y la veracidad de la decisión de ETA, en vez de impulsar al proceso de paz, trata de recuperar la idea de que la actividad de dicha organización perdura.*

2.- El Ayuntamiento de Urnieta reclama respeto a todos los derechos civiles y políticos de toda la ciudadanía y solicitan la puesta en libertad de todas las personas detenidas que en el seno de Herrira estaban trabajando por los derechos fundamentales de los y las presas vascas.

Toma la palabra el concejal de BILDU Andoni Urbistondo que pasa a dar lectura al siguiente texto; *Pasa den astean Guardia Zibilak Euskal Herrian Herrira erakundearen aurka egindako sarekadaren inguruan honakoa plazaratu nahi genuke:*

*-Tal y como se ha visto en el Pleno extraordinario, hace poco se ha aprobado una moción acordada con el PNV. Nuestra preferencia era lograr el mayor apoyo y acuerdo, y por ese lado, queríamos agradecer la actitud positiva que ha mostrado el partido nacionalista vasco. Han dicho, hemos dicho que las detenciones no son más que un obstáculo en el camino hacia la paz. Una gran mayoría del este pleno, diez de trece concejales, y eso es importante. Tal y como la declaración conjunta que hicieron la semana pasada Joseba Egibar y Laura Mintegi en el Parlamento Vasco.*

*-Una vez dicho lo anterior, queríamos pedir unas aclaraciones o la opinión al PNV sobre algunos puntos. El primero, sobre la actitud severa que demostró la Ertzaintza en las detenciones de Hernani el pasado lunes. Nos parece bastante penoso, que de por sí, la Ertzaintza proteja a la Guardia Civil al detener a ciudadanos vascos, y todavía más penoso el jaleo que se montó una vez realizadas las detenciones. Todo el mundo ha visto en la prensa y en televisión, que golpearon en la cabeza a una senadora de Amaiur, pero junto con ella fueron muchas más las personas*



## Urnietako Udala

### 2013KO URRIAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE OCTUBRE DE 2013

Hala bada, ze helbururekin? Josu Erkoreka bozeramaleak ikerketa bat egingo zela jakinarazi zuen pasa den asteartean, baina guk dakigula, inork ez dio argibiderik eskatu momentuz Amalur Mendizabali. Arduratuta gaude Jon Lizarribar urnietarraren atxiloketan ere modus operandi bera errepikatu zelako. Guardia Zibilak atxilotu, Ertzaintzak haiek babestu, eta bukaeran egurra. Zergatik? Zertarako? Handiaren aurrean otzan, eta txikia zanpatzeko errukirik ez. Guardia Zibilak lan garbia, eta Ertzaintzak lan zikina. Nork aginduta? Ez dugu uste halako erabakirik Ertzainak berak hartzen duenik.

-Larriak iruditzen zaizkigu Jaurlaritzako Erkoreka bozeramaleak atxiloketen biharamunean egindako adierazpenak. Lehen erreferentzia ETARI, desagertu ez delako. 18 atxilotu, sekulako zirkoa, liskarrak, kolpeak eta lehen hitzak, exigentziak, ETARI, desagertu ez delako. Laster bi urte beteko dira ETAK alde bakarreko su-eten iraunkorra jakinarazi zuela. Ondoren, EAJ beti bakearen alde egon dela esan zuen Erkorekak, eta ea atxilotuetako batzuk, edo ezker abertzaleko guztiak beti hala egon ote diren ez zekiela. Erkorekak berak esana: "Nik, guk, ez dugu inoiz esan ETA hil itzazu esan. Antzera esan al dezakete denek?". Urnietako Bilduren izenean hitz egiten ari naiz ni. Herria ordezkatzan dugun bost zinegotziok ez dugu ETA hil itzazu esan, esaten edo esango ere. Ezagutzen ditudan atxilotuek ere ez. Hitz horiek soberan daudela esan nahi genuke, eta Urnietako EAJk hitz horien inguruan zer pentsatzen duen jakin nahi genuke. Gure ustez EAJko agintari gorenak Espainiaren aurrean haserre plantarik ez egitea erabaki dute sarekada honetan, eta desarmae armak erabiltzen ari denari eskatu beharrean, Guardia Zibila, erabiltzen ez dituenari eskatzen jarraitu du, ETARI. Noiz arte?

-Alderdi Sozialistarentzat ere hitz batzuk. Jesus Egiguren alderdi sozialistako presidentea atxiloketen aurka agertu zen. PSE-EEK, agiri ofizial

golpeadas. ¿Por qué? ¿Quién decide que se utilicen las porras? ¿La Ertzaintza? ¿Los responsables políticos? Y si es así, ¿con qué objetivo? El portavoz Josu Erkoreka hizo saber el pasado martes que se abriría una investigación, pero que nosotros sepamos, todavía nadie le ha pedido explicaciones a Amaiur Mendizabal. También estamos preocupados porque en la detención del urnietarra Jon Lizarribar se volvió a repetir el mismo modus operandi. La Guardia Civil detiene, la Ertzaintza los protege, y al final pelea. ¿Por qué? ¿Para qué? Humilde ante el grande, y sin compasión por pisotear al pequeño. La Guardia Civil hace el trabajo limpio y la Ertzaintza el trabajo sucio. ¿Ordenado por quién? No creemos que una decisión así la toma la misma Ertzaintza.

-Nos parecen graves las declaraciones que el portavoz del Gobierno Vasco, Erkoreka, hizo al día siguiente a las detenciones. La primera referencia fue para ETA, porque no ha desaparecido. 18 detenidos, un circo espectacular, peleas, golpes y las primera palabras, las primera exigencia a ETA, por no haber desaparecido. Pronto se cumplirán dos años desde que ETA anunció su alto al fuego permanente unilateral. Después, Erkoreka dijo que el PNV siempre a estado a favor de la paz, y que no sabía si algunos de los detenidos, o todos los de la izquierda abertzale lo habían estado también. Dicho por el mismo Erkoreka: "Yo, nosotros nunca hemos dicho "ETA matalos". ¿Pueden todos decir lo mismo?". Yo estoy hablando en nombre de Bildu de Urnieta. Los cinco concejales que representamos al pueblo no hemos dicho "ETA matalos", ni lo decimos, ni lo diremos. Tampoco los detenidos que conozco. Queremos decir que esas palabras están de sobra, y queríamos saber qué es lo que piensa el PNV de Urnieta sobre esas palabras. Yo creo que los mayores responsables del PNV han decidido hacer como que no están enfadados por esta redada ante España, y en vez de pedir el desarme a quien está utilizando las armas, la Guardia Civil, ha continuado pidiéndosela a quien no las utiliza, a ETA. ¿Hasta cuándo?

-También unas palabras para el Partido Socialista. El presidente del partido socialista, Jesús Egiguren, se mostró en contra de las



## Urnietako Udala

### 2013KO URRIAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE OCTUBRE DE 2013

batean, Justiziaren erabakiak errespetatzen dituela esan zuen, eta alderdiko kideren batek "ETAk dena kontaminatzen du" esanez justifikatu zuen sarekada. Ondoren Donostiako Udalean salaketa ebazpena onartu zuten Donostiako Udaletxean, EAJ eta Bildurekin batera, atxilotetak salatuz. Ez dakigu Urnietako alderdi sozialistak ze jarrera daukan.

-Erakunde legal eta publiko bateko 18 lagun atxilotu dituzte, sekulako zirkoa muntatu, eta hiru egunen buruan denak libre utzi. Udalbatza honetako kide batzuek gaurko ez-ohiko batzar hau bertan behera uztea proposatu ziguten, libre geratu zirelako. Libre bai, baina nola? Batzuk 20.000 euroko fidantza ordainduta, eta inputazio larriekin: terrorismoa gorestea, erakunde terrorista bat finantzatzea, eta erakunde terroristako kide izatea. Eloy Velascoren azalpenak: "Humanitaria delako itxurapean eta espetxe arloko aldarrikapenen itxurapean, Herrira-k ETAk bilatzen duen presoek kohesioa mantentzen du eta beren kondenak osorik mantentzera animatzen ditu", eta aldi berean uste du Herrira-k "terrorismoa goratzeko ekintzak finantzatu eta antolatzeke" balio duela. Velascok justifikatu zuen ikerketa poliziala egin bitartean, 2010az geroztikako dokumentuak bilatu direla eta horiek egiaztatzen dutela "atxilotuek Herriraren bitartez, presoek kolektiboan eraginak izaten eta etakideen jarraibideak markatzen jarraitzen dutela".

Hori ez du inork sinesten, eta garbi dugu batzuk iraganera bueltatzeko gogoia dutela, pasa den asteko sarekadak inpunitate osoz eginda. Hilabete atzera, Jaurlearitzako Bake Ponentzia uztea erabaki zuen zure alderdiak, eta galdera batzuk egin nahi genituzke. Zoru etikoa al da pasa den asteko sarekada? 20.000 euroko fidantzak, pasaporte kentzea, bi astez behin sinadura bat ematera joan beharra epaitegira... erakunde publiko eta legal bateko herritar arruntak dira. Zoru etikoa al da Gurutze lantziren senideek bera hil eta 20 urte geroago erreparaziorik jaso ez izana? Edota Jon Lizarribarren Garbiñe emazteak eta Ander seme txikiak 1.500 kilometro egin behar izatea astebururo kristal baten bitartez 40 minutuko bisita egiteko? Esango diguzue gu ez garela inor lezioak emateko giza eskubideen alorrean eta beste. Betikoa. EH Bilduko kideok biolentzia oro errefusatu genuen alderdiko kide izateko, ETA erakundearena ere bai.

detenciones. El PSE-EE, en documento oficial, dijo que respetaba las decisiones de la justicia, y algún miembro del partido justificó la redada diciendo que "ETA lo contamina todo". Después en el Ayuntamiento de Donostia aprobaron una resolución de condena, el PNV y Bildu conjuntamente, denunciando las detenciones. No sabemos qué postura ha adoptado el partido socialista de Urnieta.

-Han detenido a 18 miembros de una organización legal y pública, han montado un circo tremendo, y a los tres días han liberado a todos. Algunos miembros de este pleno nos propusieron cancelar este Pleno extraordinario de hoy, porque habían quedado libres. Libres sí, ¿pero, cómo? Algunos han pagado una fianza de 20.000 euros, y tienen graves imputaciones: enaltecimiento del terrorismo, financiar una organización terrorista y ser miembro de organización terrorista. Las explicaciones de Eloy Velasco: "Bajo la apariencia humanitaria y de reivindicaciones penitenciarias, Herrira mantiene la cohesión de los presos que busca ETA y les anima a mantenerse firmes en el cumplimiento íntegro de las condenas", al tiempo que cree que Herrira sirve para "financiar y organizar actos de enaltecimiento de terroristas". Velasco justificó que durante la investigación policial, se han incautado de documentos posteriores a 2010 que "acreditan que los detenidos siguen, a través de Herrira, influyendo en el colectivo de presos y marcando las directrices etarras".

Eso no se lo cree nadie, y tenemos claro que algunos tienen ganas de volver al pasado, con las redadas de la semana pasada. Hace un mes, vuestro partido decidió abandonar la Ponencia de Paz del Gobierno Vasco, y queríamos plantear algunas preguntas. ¿Es ética la redada de la semana pasada? Fianzas de 20.000 euros, quitar el pasaporte, tener que ir al juzgado cada dos semanas a firmar...son ciudadanos normales y corrientes de una organización pública y legal. ¿Es ético que los familiares de Gurutze lantzi no hayan recibido reparación alguna 20 años después de su muerte? O que Garbiñe, la mujer de Jon Lizarribar y su hijo pequeño tengan que recorrer 1.500 kilómetros cada fin de semana, para hacer una visita de 40 minutos por detrás de un cristal. No diréis que nosotros no somos nadie para dar lecciones sobre derechos humanos, etc. Lo de siempre.



## Urnietako Udala

### 2013KO URRIAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE OCTUBRE DE 2013

*Herri honetan hamarkadetan iraun duen konfliktuak eragindako zehar kalteak erreparatzeko, onartzeko borondate tinkoa dugu. Zuek ere bai?*

*-Bukatzeko, hausnarketa sakon bat eskatu nahi nizueke denoi. Pasa den astean Herriraren aurkako sarekada izan zen, laster Demokrazia 3 Milioi, Segi gazte erakundea eta Herriko Tabernen afera etorriko dira. Beste 76 auziperatu, herriko bi bizilagun tartean: Mikel Elozegi eta Olatz Izagirre. Beste batzuk ere etorriko direla ziur gaude, Espainiako Gobernuak ez duelako bake biderik nahi. Nork esan dezake ziurtasunez egunen batean ez dela atxilotua izango? Guk, behintzat, ezin dugu halakorik esan. Zuek ez dakit. Edozer gauza gerta liteke. Pasa den asteko adibidearekin nahiko. Zergatik? Nahi dutelako. Ahal dutelako. Eta erantzun indartsu bat ematen ez den, dugun bitartean antzera jarraituko dutelako.*

Udal talde sozialistako kide Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta esan du denok dauzkagula istorioak, eta ez duela sartu nahi "norgehiagokan", eta orain hori gertatu bada, batzuek ere gorriak pasatu dituztela eta ez dakiela zentzurik ba ote duen hori dena mugitzen hasteak. Era berean, azpimarratu du ezin duela ez Eigurenen partez ez beste edozein talderen partez erantzun, eta egia dela PSE-EE taldea ordezkatzeko duena, baina urnietan udal talde bat direla, talde sozialista eta bere autonomia zerbait duela. Horregatik, ez da besteek egindako adierazpenen arduradun egiten, eta are gutxiago, zergatik egiten dituzten. Justiziari errespetua eskatu dio eta lan egiten utzi behar zaio, eta deliturik badago, kondenatu egingo dituztela, eta ez badago, libre utziko dituztela. Azpimarratu du zenbait akusazio frogatu egin beharko direla, eta hala egingo ez balitz, orduan bai izango litzatekeela kezagarria.

EAJko bozeramale Maribel Vaquero-k hartu du hitza eta esan du ez dela sartuko Andonik egindako galderak erantzuten, ulertzen duelako gai horiek beste foro batzuetan egin behar direla, eta berak egindako galderak behin eta berriz agertzen aritu direla prentsan, eta zenbait erantzun egon direla. Ulertzen du elkarri gauzak leporatzen aritzea ez dela komeni eta garrantzitsuena lortutako

*Los miembros de EH BILDU rechazamos todo tipo de violencia para ser miembros de nuestro partido, también la de la organización ETA. Tenemos la firme voluntad de reparar, aceptar los daños producidos por el conflicto que ha durado décadas en este pueblo. ¿También vosotros?*

*-Finalmente, querría pedirlos a todos una intensa reflexión. La pasada semana hubo una redada contra Herrera, y pronto vendrán los juicios por Demokrazia 3 Milioi, la organización juvenil Segi, y las Herriko Tabernas. Otros 76 procesados, entre ellos 2 vecinos del pueblo: Mikel Elozegi y Olatz Izagirre. Estamos seguros de que vendrán más, porque no quiere un camino para la paz. ¿Quién puede decir con seguridad que algún día no será detenido? Nosotros, por lo menos, no podemos decir nada así. No lo sé vosotros. Puede ocurrir cualquier cosa. Es suficiente con los ejemplos de la semana pasada. ¿Por qué? Porque lo quieren. Porque pueden. Y porque mientras no se dé, no demos una fuerza respuesta, continuaran de forma parecida.*

Toma la palabra el portavoz del Grupo municipal socialista Hermenegildo González señalando que todos tenemos historias y que no quieren entrar en el "tú más" y que si ahora ha pasado esto, algunos también han pasado lo que han pasado y que no sabe si tiene sentido empezar a remover todo eso. Recalca a su vez que él no puede contestar ni por Eiguren ni por ningún otro partido y que es verdad que el representa al PSE-EE pero que en urnieta son un grupo municipal, una agrupación socialista y que tiene su cierta autonomía y que no se hace responsable de las declaraciones de los demás y menos por qué las hacen. Pide respeto a la Justicia, dejarla trabajar y si hay delito los condenarán y si no hay delito los dejarán libres. Recalca que hay unas acusaciones que se tendrán que demostrar y si no entonces sí que les parecería muy preocupante.

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero señalando que no va a entrar a a contestar a las preguntas realizadas por Andoni porque entiende que esos temas han de tratarse en otros foros, y que las preguntas lanzadas han venido apareciendo una y otra vez en prensa y que ha habido una serie de contestaciones. Entiende que no es conveniente eso de los



## Urnietako Udala

### 2013KO URRIAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE OCTUBRE DE 2013

adostasuna dela, eta bere ustez, Bozeramaleen Batzordeetan izandako eztabaidetan etab. dezente gehiago aurreratzen joan direla. Adierazi du beraiek behin baino gehiagotan salatu dutela Auzitegi Gorenaren eta Espainiako Gobernuaren estrategia politiko-judizial baten murgilduta egotea. Amaitzeko esan du, herri honetan frogatu dela urratsak eman ditzakegula errespetua eta pazientzia landuz, guretzat ondo ez dagoena gogor salatuz, bakoitzari iruditzen zaion indarrarekin, hipotesi batean oinarritutako atxiloketak direlako.

Errespetua eta pazientzia eskatu du, izan ere, politikan, herri honetan, ezinbestekoa da pazientzia izatea aurrera egin ahal izateko, bakoitzari egokitzen zaion ulean.

Itziar Martiarena BILDUKo zinegotziak hartu du hitza eta ondorengo adierazi du:

*"Iritzi asko jaso ditugu egun hauetan gertatutakoaren inguruan eta garbi ikusi dira alderi politiko eta sindikal guztien jarrera. Eta ez da nire asmoa gaurkoan hortaz aritzea ze beti egongo dira ukatzen dutenak, ikusi nahi ez dutenak, ikusten dutenak eta beste aldera begiratzen dutenak, egoera larritik bizi dutenak, beldurrez etxean geratzen direnak eta beldurrez kalera irteten direnak. Ez det ere kontatu nahi gaurkoan egun hauetan pasatutako ansiedade, inpotentzi, informazio falta, beldur eta momentu txar ez baitiot inori utziko biktimismoa leporatzen. Kontatu nahi dudana eserleku honetatik, Urnieta osoak jakin dezan, une txarrenetan ere gauza onak ikusten direla. Egun hauetan urnietar dexente hurbildu zaizkit animatzera eta laguntza eskaintzera. Asko ez nituen ezagutu ere egiten, y alguna me ha dicho que sentía vergüenza ajena. Gurean baino egoera larriagoak bizi dituzten amen muxuak jaso ditut eta Gurutza lantziren amaren besarkada. Ikusi det ere Amaiak kriston laguna onak dituela, hauek ibili dira buru belarri alde batera eta bestera senideok Madrilen ginen bitartean. Ikusi det ere, Audientzi Nazionalaren estorsioaren aurrean herritarren eskuzabaltasuna, Kudu etxera ekartzeko 20.000 € bildu behar ziren. Bajina bat errifa eta beste ekimen ugari egin beharko dituzte baten batzuk. Ikusi det ere herri honetan harro sentitzeko moduko gazteak ditugula eta baita injustizia denuntziatzea terrorismo bihurtu dela. Beraz, hemen denak gaude kolokan, hobeto esanda, batzuk besteak baino gehiago eta*

reproches mutuos y que lo importante es el acuerdo logrado y que considera que en este Ayuntamiento han ido avanzando bastante más en los debates planteados en las distintas Juntas de Portavoces etc. Señala que ellos han denunciado más de una vez que estamos inmersos en una estrategia político-judicial de la Audiencia Nacional y el Gobierno español. Finaliza señalando que en este pueblo se ha demostrado que podemos dar pasos trabajando el respeto y la paciencia, denunciando con fuerza lo que para nosotros no está bien, que se trata de unas detenciones basadas en hipótesis, con la contundencia que a cada uno le parezca más oportuno. Pide respeto y paciencia porque en política, en este pueblo, es imprescindible tener paciencia para poder avanzar, cada uno en cuando le toque.

Toma la palabra la concejala de Bildu Itziar Martiarena que pasa a señalar lo siguiente:

*"Hemos recibido muchas opiniones sobre lo ocurrido estos días y se ha visto claramente la actitud de todos los partidos políticos y sindicales. Y no es mi intención hablar de ese tema hoy, porque siempre habrá quien lo niegue, quien no quiera verlo, quienes lo ven y miran para otro lado, quienes lo viven en su propia piel, quienes se quedan en casa por miedo y quienes salen a la calle con miedo. Tampoco quiero contar aquí la ansiedad, impotencia, falta de información, miedo y malos momentos pasados estos días, ya que no voy a dejar que nadie me acuse de victimismo. Lo que quiero contar desde este asiento, para que lo sepa todo Urnieta, es que en los peores momentos también se ven cosas buenas. Estos días se me han acercado bastantes urnietarras a animarme y a ofrecerme ayuda. Muchos ni siquiera los conocía, y alguna me ha dicho que sentía vergüenza ajena. He recibido besos de madres que viven situaciones más graves que la nuestra y el abrazo de Gurutze lantzi. He visto que Amaia tiene muy buenas amistades, quienes han andado de un lado para otro, mientras los familiares estábamos en Madrid. También he visto, la generosidad de la ciudadanía ante la extorsión de la Audiencia Nacional, ya que para traer a Kudu a casa eran necesarios 20.000 €. Algunos tendrán que hacer un montón de rifas y otras muchas actividades. He visto también que en este pueblo tenemos jóvenes de los que podemos*



## Urrietako Udala

**2013KO URRIAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 7 DE OCTUBRE DE 2013**

*azkenik garbien ikusi dudana da herri honetan kristo guztiak nahi pakea eta benetako justizia eta demokrazia eta asko lagunduko lukeela agintariak herriaren eskubideak defendatzera jarriko balira behingoz. Eskerrik asko danoi".*

*estar orgullosos y también que denunciar la injusticia se ha convertido en terrorismo. Por lo tanto, aquí todos andamos a medias, o mejor dicho, algunos más que otros, y finalmente, lo que más claro he visto es que en este pueblo todo el mundo quiere la paz y la verdadera justicia y democracia y que ayudaría mucho si los gobernantes se pusieran de una vez a defender los derechos del pueblo. Gracias a todos".*

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta emaitza honako hau izan da:

El alcalde ha propuesto someterlo a votación , con el siguiente resultado:

Alde: 10 (EAJ-PNV 5, BILDU 5,PSE-EE/PSOE 3)

A favor: 10 (EAJ-PNV 5, BILDU 5,PSE-EE/PSOE 3)

Aurka: PSE-EE/PSOE 3)

En contra: PSE-EE/PSOE 3)

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

Bozketaren ondoren, Udalbatzak beharrezko legezko gehiengoarekin hartu du ondorengo

Tras la votación, el Pleno ha adoptado con la mayoría legal requerida el siguiente

**ERABAKIA****ACUERDO**

Lehena.- EAJk eta BILDUK aurkeztutako testua onartu. (I eranskina)

Primero.- Aprobar el texto presentado por el PNV y BILDU. ( Anexo I)

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ez ohiko osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean, arratsaldeko zazpiak eta hogeita bostean, eta nik, Urrietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las siete y veinticinco de la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alcontxa Elorza

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Bitarteko Idazkaria,

Alkate-lehendakaria,

Urrietako Udala

Urrietako Udala

IDAZKARITZA

ALKATETZA



## Urnietako Udala

### 2013KO URRIAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE OCTUBRE DE 2013

#### ANEXO I / I-ERANSKINA

*“ 1.-El Ayuntamiento de Urnieta denuncia la estrategia político-judicial del Gobierno español, que, basándose en las leyes de excepcionalidad, utiliza determinadas instancias judiciales como la Audiencia Nacional para activar la tesis del “todo es ETA” a sabiendas de que ETA anunció hace casi dos años el cese definitivo de su actividad armada y porque, en vez de asumir la responsabilidad política de verificar la irreversibilidad y la veracidad de la decisión de ETA, en vez de impulsar al proceso de paz, trata de recuperar la idea de que la actividad de dicha organización perdura.*

*2.- El Ayuntamiento de Urnieta reclama respeto a todos los derechos civiles y políticos de toda la ciudadanía y solicitan la puesta en libertad de todas las personas detenidas que en el seno de Herrera estaban trabajando por los derechos fundamentales de los y las presas vascas.*

*1.- Urnietako Udalak Espainiar Gobernuaren estrategia politiko-judiziala salatzen du, salbuespenezko legediak oinarri hartuta, zenbait erakunde judizial, Auzitegi nazionala kasu, erabiltzen dituelako “ dena ETA da” tesia aktibatzeke, ETAK duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren, eta ETAREN ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabilelako, aipatu erakunde horren erabakiaren irrebetsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatzeko ardura politikoa bere gain hartu beharrean, eta bake prozesua bultzatu beharrean.*

*2.- Urnietako Udalak Euskal Herritarron eskubide zibil eta politikoen errespetua eta “ Herrera”ren baitan euskal presoen oinarritzko eskubideen alde lanean ari ziren atxilotutako pertsona guztien askatasuna eskatzen dute.*